



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Jose Maria Alzuri Vertiz
Maria Larretxea Echeverria
Pedro Francisco Mindegua Elizalde
Miren Ilarregui Belarra
Arkaitz Mindegia Baleztena

2025eko martxoaren 3an, 15:30ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Francisco Javier Bereau Miquelarena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURTIZKO FRONTOIA BERRITZEKO PLIEGOAK ONARTZEA.

Ikusirik, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutoaren jakinarazpena, 2025eko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan 0011-5265-2025-000000 expediente zenbakia eta A500000 A5000 7609 3361F5 partida ekonomikoa, 125.000euroko proiektua agertzen da Iturengo udalaren izenean “Aurtizko udal frontoia berritzeko proiektua” izenarekin.

Francisco Javier Chocarro San Martin arkitekтуari proiektu teknikoa egiteko eskatu zitzaion. Zuzeneko dirulaguntza eskatu zen Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutoaren Azpiegituren kudeaketa atalean. Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez honako hau erabaki du:

1. “Renovación y cierre del frontón municipal de Aurtiz” izenburuko proiektua onartzea.
2. Onestea obrak kontratatzeke espediente eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua prozedura sinplikatu bidez esleitzeko.
3. Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.
4. Gastuaren baimena ematea. 2025eko aurrekontuen 342062200 “Aurtizko frontoia berritzea” partidari aurrekusita dagoena.
5. Lizitazio iragarkia argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian, gonbidapenak bost enpresei bidaliz; Construcciones Espelosin Sociedad Microcooperativa, I.M.Arrixko Igeltseritza S.L, Construcciones Izarra, S.A., Betilan Eraikuntzak eta Ariztimuño Canflanca Hermanos. Hamar egun baldiodun epea emanez.

2. LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN DEPARTAMENTUAREN ETA NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN-MARKOARI ATXIKITZEKO ERABAKIA, ELIZA KATOLIKOAK NAFARROAN IMMATRIKULATURIKO ONDASUNEN ZERRENDAN BALIZKO HERRI-ONDASUNAK DAUDEN AZTERTZEKO.

Ikusirik Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak lankidetzarako hitzarmen-marko bat izenpetu dutela, Nafarroako



ITURENGO UDALA

(Nafarroa)
31745

Eliza Katolikoak immatrikulaturiko ondasunen zerrendan balizko herri-ondasunak dauden aztertzeke. Idazkariak gaia azaldu eta gero, Udaltzarak **aho batez hurrengoak erabaki du**:

- 1.- Hitzarmena onartzea.
- 2.- Akordioa interesatuari jakinaraztea.

“LANDA GARAPENENKO ETA INGURUMENENKO DEPARTAMENTUAREN ETA NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZARAKO HITZARMEN-MARKOARI ATXIKITZEKO ERABAKIA, ELIZA KATOLIKOAK NAFARROAN IMMATRIKULATURIKO ONDASUNEN ZERRENDAN BALIZKO HERRI-ONDASUNAK DAUDEN AZTERTZEKO.

AURREKARIAK

LEHENBIZIKOA. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak lankidetzarako hitzarmen-marko bat izenpetu dute, Nafarroako Eliza Katolikoak immatrikulaturiko ondasunen zerrendan balizko herri-ondasunak dauden aztertzeke.

BIGARRENA: Hitzarmen horri esker, balizko herri-ondasunen azterketa tekniko eta ikerketa egin ahalko da, ondoren eta hala badagokio, ondasun horien defentsa egin eta ondasunak berreskuratzeke.

HIRUGARRENA: Honako Udal honek: ITUREN adierazitako zerbitzua jasotzeko interesa du bere lurralde-eremuan dauden ondasunen zerrendari dagokionez.

Horrenbestez, Udalaren organo eskudunak

ERABAKI DU

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzarako hitzarmen-markoari atxikitzea, Eliza Katolikoak Nafarroako Foru Erkidegoan immatrikulaturiko ondasunen zerrendan balizko herri-ondasunak dauden aztertzeke.
2. Erabaki horren berri ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari (fnmc@fnmc.es)."

Eta bertzerik ezean, 16:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.